


Urtebete Teknologia Parkearen bizitzan

2007



Bizkaiko Teknologia Parkea
Parque Tecnológico de Bizkaia



Bizkaiko Teknoloki Parkea
Parque Tecnológico de Bizkaia



Tecnologi Parkea, S. A.
101 eraikina
48170 Zamudio - Bizkaia
Tel: 94 403 95 00
Fax: 94 403 95 10
[www. parque-tecnologico.net](http://www.parque-tecnologico.net)

A.07

Aurkibidea

A.07

Aurkezpen-hitz batzuk

Presidentearen hitz batzuk	4/36
Zuzendariak hitz egiten digu	6/36

1.07

Enpresaren jarduera

Azpiegituren garapena	10/36
Berrikuntzaren sustapena	12/36

2.07

Gure balore nagusiak

Gure bazkideak	20/36
Bezeroak	21/36
Giza-taldea	22/36
Zerbitzurako bokazioa eta etengabeko hobekuntzarako konpromisoa	23/36
Sistemak	24/36
Enpresa-erantzukizun soziala	25/36

3.07

Urtea zifratan

Adierazle ekonomiko-finantzarioak	28/36
Jarduera-adierazleak	29/36

4.07

Kontuak

Egoera-balantzeak	32/36
Galdu-irabazien kontuak	34/36





AOT7

*Aurkezpen-hitz
batzuk*

A.07

Presidentearen hitz batzuk

Julián Sánchez

Aurreko memorietan dagoeneko jakinarazi izan dugun moduan, bai 2005 bai 2006 urteak oso onak izan dira Euskadiko Teknologia Parkeentzat. Eta orain, 2007ko memoriari ekin behar diogunean ikusten dugu datuek gure eguneko lana berriz ere bermatzen dutela; izan ere, aparta izan da Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearentzat eta baita Parke honentzat ere, Estatuko Teknologia Parkeen sorreran aitzindaria eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari dagokionez, beste Parkeentzat erreferentzia izan dena.

2007ko datu bikainak duela 20 urte baino gehiago hasitako lan jarraituaren ondorio dira, Parkeak bere ibilbideari ekin zionetik, eta ahalegindu gara ingurune bat sortzen hazkundera beti iraunkorra eta orekatua izan dadin, koiuntura ekonomikoak edozein direla ere. Lan antiziklikoa da, uneko dezelerazio ekonomikoa bezalako momentuetan erabateko garrantzia izaten duena.

Orain dugu hazkunderaren alde egiteko eta urtetan zehar egindako lanaren fruituak biltzeko unea. Momentu honetan, hazkunde ahalmen handia duten sektoreetan dinamismo handia dago, biozientzien sektorean eta energiarekin eta garapen iraunkorarekin loturiko jardueretan, esaterako.

Osasuna, bizi-kalitatea, iraunkortasuna, energia, nanoteknologiak... hurrengo urteotako agendan nabarmenduko dira. Arlo berri hauen hedapenari esker, aukera berriak sortuko dira euskal enpresa-sarearentzat.



Ez dugu ahaztu behar euskal Parkeetan kokaturiko enpresen %70 bertan jaio dela. Gaur egun mundu osoan gertatzen ari den dezelerazio-koiunturan, berrikuntzaren kulturak berebiziko garrantzia du eredu ekonomikoa eredu lehiakor eta moderno bilakatzeko.

Gainera, teknologikoki aurreratuak diren enpresen kokapena sustatzen jarraitu behar dugu; enpresen arteko bai eta horien eta Unibertsitateen eta Zentro Teknologikoen arteko lankidetzaren ere, oinarri teknologikoko enpresa berriak sortu enpresa-mintegiak eta inkubadoreak abian jarri.

Parkea ere dagoeneko teknologiaren eta berrikuntzaren kulturaren benetako hedapen-fokua da bere ingurunean. Etorkizunerako eredu. Parkeko talde osoak norabide horretan jarraituko du lanean erakundeen eta 200 enpresa baino gehiagoren nahiz 6.750 langileen laguntzaz baliatuz. Hemendik horiek eskertu nahi ditugu egindako lanagatik eta beren konfiantza eskaintzen jarraitzeagatik.

Parkearen arrakasta guztion arrakasta da.

A.07

Zuzendariak hitz egiten digu

Txaber Ouro Arruza

Urtea laburbiltzeko modurik egokiena, memoria honekin lortu nahi dugun bezalaxe, zenbakiekin adieraztea da. Egia da. Datuak, ehunekoigoera adierazgarriekin datozenean, hau da, ekitaldia ona izan bada, gauzak bide onetik doazenaren lekuko objektiboa dira. Zentzu horretan, Parkean harro egon gaitzke azkeneko urteotan gure enpresak, gure etorkizunaren sinonimo direnak, oso ondo doazelako, hainbeste ezen guk geuk ere azkeneko bi ekitaldiok bikaintzat hartu ditugula. Teknologia Parkearen 2007. urtea 202 enpresekin, 6.750 langileekin eta 1.950 milioi euroko fakturazioarekin ixtea guretzako gertaera gogoangarria izan da historian; are gehiago aurreko urteko guztizko kopuruarekin alderatuta, 20 enpresa gehiago eta 345 langile gehiago ditugunean eta fakturazioa 160 milioi eurotan handitu denean.

Behin hau esanda, nolabait urtea Bizkaiko Parkearentzat oso ona izan dela adierazten baitu, norberak bere buruari galdetzen dio nola isla daitezkeen Bizkaiko Parkean gauzatzen ari den jardueraren beste gertaera gogoangarri batzuk, maila kualitatibo altuagoa dutenak. Baimena ematen badidazue, behin emaitzak aurkeztuta, hots, “gure uzta”, 2007an erein duguna adierazi nahi dugu ere bai, hurrengo urteotan fruitu onak lortzeko gai izan gaitezen.



Zer egiten ari gara hori lortzeko?

Teknologikoki aurreratuak diren enpresen kokapena sustatzen jarraitzea; horien eta Unibertsitateen eta Zentro Teknologikoen arteko lankidetzak ere bai, oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzea enpresa-mintegiak eta inkubadoreak abian jarriz, sare nazionaletan edo nazioartekoetan parte hartzea edo bere ingurunean teknologiaren eta berrikuntzaren kulturaren benetako hedapen-fokuak eratzea. Eta hori guztia ez egungo kokalekuak soilik kontuan hartuz, baizik eta sortzen ari diren edo sortzen joango diren berrikuntza-eremu berriak kontuan hartuz.

Ziurtatu dezaket etorkizunari baikortasun osoz begiratzen diogula eta Parkeak hazten jarrai dezan beharrezko tresnak mahaigaineratzen dihardugula. Horren frogagarri gisa Derioko eta Zamudioko nahiz Ezkerraldeko Parkea handitzeko lanak edo UPV/EHUko Leioako campusean Zientzia Parkearen sorrera edo etorkizunean Zorrotzaurren egingo den Hiri Parkea ditugu.



*Enpresaren
jarduera*

1.07

Azpiegituren garapena

- 500 eraikina bukatzea eta bere barnea egokitzea teknologikoki aurreratuak diren enpresa-proiektu berrietarako.
- Bio-sektoreari zuzendutako 502 eraikina egiten jarraitzea, merkatal-gunea barne.
- Teknologia berrien interpretazio zentroa (BTEK) eraikitzeko obren jarraipena.
- Enpresa anitzeko 100 eraikina eskuratzea.
- Enpresa anitzeko 203 eraikina eskuratzea.
- Hirigintza-kudeaketak amaitzea III. faseari dagokion Zamudioko udalerriko hedapen-gunean (Aresti sektorea).
- III. fasearen urbanizazio-lanak esleitzea, Zamudion (Aresti).
- 407 eraikin berria egiteko lanak esleitzea (Aresti).



Azpiegituren
garapena

- | | |
|--|--|
| • Hirigintza-zerbitzuak esleitzea Derioko udalerrian III. fasearen hedapen berrirako. | • Mantentze-lanak kudeatzeko softwarea ezartzea. |
| • Ezkerraldean lursailak erostea Teknologia Parkearen “campus” berrirako (Abanto eta Ortuella). | • UPV/EHUren Mikroelektronika Instituturako laborategiak garatzea. |
| • UPV/EHU-Leioako Zientzia Parkerako Master Plana garatzea, aipatu Parkea 2008tik aurrera garatzeko asmoz. | • Zuntz optikozko sarea berritzeko II. eta III. faseak (Zamudio eta Derio campusa). |
| • Zorrotzaurreko Hiri Teknologia Parkea garatzeko akordioa. | • Mantentze-kontratuen lizitazio eta esleipen berriak. |
| • Gizarte Kluba birmoldatzea. | • Argiteria publikoari dagokionez, energia aurrezteko proiektua. |
| • 105 eraikineko aire girotua berritzea. | Mintegiak, konferentziak, ikastaroak eta hedapen edo berrikuntza teknologikoko ekitaldiak garatzeko dauden gune eta instalazioei dagokionez, gune horiek berritzeko eta baliabide teknikoak modernizatzeko ahaleginarekin jarraitu da. |



Berrikuntzaren sustapena

2007. urteak Innobasque, Agencia Vasca de la Innovación - Berrikuntzaren Euskal Agentziaren sorrera izan du ezaugarri, irabazi asmorik gabeko elkarte bera, Euskadin berrikuntza bere alor guztietan koordinatzeko eta bultzatzeko eta izaera ekintzailea eta sormena sustatzeko sortutakoa.

Bizkaiko Teknologia Parkeak, Innobasqueren agente aktiboa izanik, enpresetan eta erakundeetan berrikuntzarako dinamikak sortzen laguntzen dituzten berrikuntzarekin loturiko baloreak eta jarrerak bultzatzen ditu.



Berrikuntzaren
sustapena

Alor honetan 2007an zehar garatu diren ekimenak askotarikoak izan dira:

- A · Berrikuntzaren kultura hedatzea.
- B · Teknologiaren eta ezagutzaren transferentzia eta enpresen arteko lankidetzaren bultzatzea eta sustatzea.
- C · Oinarri teknologikoko enpresei zuzendutako I+G proiektuetarako laguntzak kudeatzea.
- D · Enpresa-ekintzailtzaren eta Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien (NEBT) sorreraren eta garapenaren alde egitea.
- E · Lankidetzaren sareetan parte hartzea, bai Espainian bai nazioartean.
- F · Enpresa-nazioartekotzearen alde egitea.
- G · Berrikuntzarako eremu berriak garatzea, azpiegitura berriak.
- H · Garapen iraunkorra.



A- Berrikuntzaren kultura hedatzea.

- Teknologia berrien interpretazio zentro bat, “BTEK”, garatzeko proiektua sustatzea.
- Parkeak enpresen arteko topaketak, hedapenerako jardunaldiak, teknologiaren transferentzia eta “gosari teknologikoak” antolatzen jarraitzen du (11 ekitaldi 2007an).
- Zientzia eta Teknologiaren Europako Astea ospatu zenean, Parkeak ateak zabaltzeko egunaren edizio berria antolatu zuen eta horrela Parkea gizarteari hurbildu zitzaion jolas eta jai giroan.

B- Teknologiaren eta ezagutzaren transferentzia eta enpresen arteko lankidetzaren bultzatzea eta sustatzea.

• Teknologia Parkeak Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) hiru lan-unitate ditu, hauexek dira: Teknologia Mikroeletkronikoaren Institutua, Neurozientzien Saila, Neurotek eta Kimika Analitikoko Saila.

• Estatuko beste Parke Batzuekin eta APTe elkartarekin batera, eskaintza eta eskariaren arteko bitartekaritzari buruzko “Teknologiaren Transferentziarako Sarea” proiektuan parte hartzea (Parkeko 114 enpresek eman dute izena sarean).

• Estatuan sortutako beste Teknologia eta Zientzia Parke batzuei laguntza teknikoa eskaintzea. 2007an zehar laguntza Mataróko Teknocampusari zuzendu zitzaion.

• I2Bask Sarrerako eta IRIS Sarrerako konexutasuna; horiek Zientzia, Teknologiaren Euskal Sareko agenteei telekomunikazio-azpiegiturak eta IKT zerbitzuak eskaintzen dizkiete.



C- Oinarri teknologikoko enpresei zuzendutako I+G proiektuetarako laguntzak kudeatzea.

• Bizkaiko Teknologia Parkeak I+G azpiegitura berriak sortzeko laguntzak eta enpresetan ikerketa-proiektuak gara daitezen laguntzak kudeatu ditu. Guztira ikerketa-enpresa zein erakundeen 20 proiektuk 31 milioi euroko aurrerakin berreskuragarriak lortu zituzten 2007ko deialdian hainbat I+G+B proiektuen egikaritzarako.

• Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioarekiko bitartekaritzak, Parkeetan Enpresa Teknologikoak Sortzeari buruzko CEIPAR Programaren bidez, Parkeko 14 enpresa sortu berriei laguntza ez berreskuragarriak ematea eta 2007an zehar Industria Antolaketarako Eskolaren (EOI) bidezko enpresa-kudeaketarako laguntza ahalbidetu ditu.

D- Enpresa-ekintzaitzaren alde eta Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien (NEBT) sorreraren eta garapenaren alde egitea.

• BOKABI Bioinkubadoreak, Bizkaiko Teknologia Parkeak eta BEAZ, S.A.-k sustatutakoa, bere jardueraren bigarren urtean guztira 8 enpresen sorrera eta garapena babestu du.



Urtebete Teknologia Parkearen bizitzan



E- Lankidetzza-sareetan parte hartzea, bai Espainian bai nazioartean.

- Estatuko Sarearen (APTE) partaide izatea eta bertan lehendakariordetza kargua betetzea.
- Innobasqueko kide izatea.
- (IASP) Nazioarteko Elkartearen kide aktiboa eta Estatu Batuetako unibertsitateek sustatutako Teknologia Parkeekin loturiko (AURP) Elkartearen partaide izatea.
- Parkeak 2007. urtean zehar WAINOVA Nazioarteko Sarearen, Berrikuntzarako Munduko Aliantza, sorreran parte hartu eta hura dinamizatu du.

F- Enpresa-nazioartekotzearen alde egitea.

- Enpresen nazioartekotzearen eta kanpoko enpresa-proiektuak hartzearen alde egitea euskal erakundeekin batera eta gure nazioarteko elkarleen partaidetzari esker (IASP, AURP eta abar).
- Bizkaiko Teknologia Parkean 2007an guztira mundu osoko 59 ordezkari izateari arreta eskaini zaie.
- Teknologia Parkeak Txileko Universidad de Concepción unibertsitatean Zientzia Parkea sortzeari buruzko aholkua eman du eta 2007an Mexikoko Parque de Investigación e Innovación Tecnológica de Monterrey parkearekin lankidetz hitzarmena sinatu du.



G- Berrikuntzarako eremu berriak garatzea, azpiegitura berriak.

- ESS-Bilbao partzuergoa sortzea Bizkaiko Teknologia Parkeari erantsitako lursailetan etorkizunean Europako Espalazio Iturriaren egoitza hautagai izatera bultzatze aldera; izan ere, aukera berria da Euskadiko ekonomiaren berrikuntzarako eta dibertsifikaziorako eta jadanik Euskadiko Bigarren Bilakaera Ekonomikoa izenez ezagutzen den asmoari balio erantsia ekar dakioko.

H- Garapen iraunkorra.

- 2007ko urte honetan Teknologia Parkearen Iraunkortasunaren Foroa abian jarri da, bertan Parkeko 15 enpresa eta zentro teknologiko baino gehiagok hartu dute parte eta bi lantalde sortu dira, “Hondakinak” bata eta “Garraioa” bestea.
- Teknologia Parkeak, bereziki, konpromiso sendoa du garapen iraunkorarekin eta ingurumenarekin eta horrez gain, zientzia, teknologia eta berrikuntza batera bizi dira abangoardiako ikerketa-enpresekin zein erakundeekin landa-inguru pribilegiatu batean. 2007ko urte honetan Teknologia Parkeko zuhaitzen ibilbidea diseinatu da inguruko naturaz gozatzeko.



*Gure balore
nagusiak*



Gure balore nagusiak

2.07

Gure bazkideak

Parque Tecnológico-Tecnologi Elkartegia, S.A. sozietatea Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailera atxikitako enpresa publikoa da.

Hauexek dira bere bazkideak:

Industriaren Sustapen eta

Eraldaketarako Baltzua, S.A. - SPRI	%74,90
Bizkaiko Foru Aldundia	%24,53
Zamudioko Udala	%0,57

Euskal erakundeek Parkea sortu zenetik, duela 22 urte, etengabeko apustua egin dute eta urtez urte handituz doa, besteren artean, Parkeak epe laburrean eta ertainean gauzatuko duen hedapen fisikoko planak barne hartzen ditu.



Bezeroak

Bezeroak Parkeko arrakastaren giltza dira. Eta hau horrela da Parkean kokatutako enpresek eta erakundeek, bai eta bertan egunero lan egiten duten pertsonen ere urtero erakusten duten konfiantzari esker.

Hemen ere aipatu nahi ditugu Parkearen benetako dimentsioa erakusten duten datu batzuk eta baita bertako enpresen izaera berritzailea eta teknologikoa ere.

- Enpresa berriak: 31 (guztira 202).
- Baterako fakturazioa: 1.950 milioi euro.
- Langileak: 6.750 pertsona baino gehiago.
- %70 baino gehiago sortu berriak dira.
- Eraikitzen/eraikitzeke: 20.000 m².
- I+G gastuak 2007ko ekitaldian: 207 milioi euro. Aipatu bolumenak Autonomia Erkidegoko I+G gastu osoaren %16 eta, gutxi gorabehera, Bizkaiko I+G gastu osoaren %34 hartzen du eta hori Parkean I+G jardueren kontzentrazio-maila altuaren adierazle argia da.
- I+G langileak: %23 (gainera %52 goi-mailako tituludunak dira).
- Doktoreak: 244.
- Bekadunak: 332.

Parkeko sektoreak aztertuz gero, ikus daiteke medikuntza eta bioteknologiaren sektorearen finkapena %5ekoa dela eta enpleguari dagokionez, informazio-teknologiaren eta telekomunikazioen sektorea %39rekin esanguratsuen izaten jarraitzen duela. Ondoren I+G zentroak daude (%14), gero aeronautika (%12) eta azkenik elektronika (%9).



Gure balore nagusiak

2.07

Giza-taldea



Bizkaiko Teknologia Parkearen moduko kualifikatutako pertsona-taldea edukitzeak, etengabeko prestakuntzan murgilduta eta Parkearen proiektuan benetan inplikaturik dagoena, erronka berriak eta zorrotzagoak ilusioz sustatzea eragiten du. Horregatik, eskerrik asko guztioi.

Zerbitzurako bokazioa eta etengabeko hobekuntzarako konpromisoa

Bezeroari eskainitako ikuspegia Bizkaiko Teknologia Parkea sozietatean lan egiten duten pertsonen etengabeko kezka izan da, da eta izango da. Parke honek lerro hauetatik Bikaintasunaren eta Etengabeko Hobekuntzaren bidean sakontzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du, bezeroei benetako balio erantsi diferentziala eskaintze aldera.



Sistemak



- EFQM kudeaketaren bikaintasunezko eredua ezartzen jarraitzea.
- Parkeko enpresen eta beste agente batzuen arteko iraunkortasun-talde berriak.
- Parkeko ingurunean prestakuntza eta enplegu beharrak ikertzeko proiektuan lankidetzan aritzea.
- Kanpo- eta barne-komunikazioko kanpainak hobetzea eta areagotzea.
- Tresna informatiko berriak ezartzea kudeaketaren hobekuntzaren euskarri gisa (mantentze-lanak...).



Enpresa-erantzukizun soziala

Parkea gizartearekiko arduratsua den enpresa da, ez bere xede sozialaren ondoriozko jardueraren garapenaren aldetik soilik. Hauexek dira adibideetako batzuk:

- Parkeko erabiltzaileei oro har eskainitako zerbitzuak, hazkunde nabarmena jasan dutenak.
- Teknologia Parkerako garraio publikoa hobetzea.
- Haurreskola bat eraikitzea eta abian jartzea, familia- eta lan-bizitza bateratzeko.
- Ezgaituen kolektiboez arduratzea, Parkeko urbanizazioetan traba arkitektonikoak kenduz.
- Parkeko langileen artean aisia-jarduerak sustatzen dituen elkarteak sortzea eta martxan jartzea (Aisiategi).
- Ingurumena errespetatzea, jarduera iraunkor baterako nahitaezko baldintza gisa.
- Gardentasuna eta barne- eta kanpo-komunikazioa, ezinbesteko praktikak gobernu korporatibo onaren bidean aurrera egiteko.
- Ezagutza hedatzeaz eta sozializatzeari arduratzea. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da berrikuntzaren eta teknologiaren transferentziaren kultura sustatzeari eta hedatzeari dagokionez egindako lana.
- Hezkuntza-komunitatera eta gure gazteengana hurbiltzea.
- Ateak zabaltzeko egunak gizartera hurbiltzeko formula gisa eta Bizkaiko biztanleei Teknologia Parkeko enpresa-multzoaren jarduerak ezagutaraztea.
- Inguruko talde edo elkarte kulturekin lankidetzan aritzea.
- Gazteen eta emakumeen enplegua sortzeko eta gure gizartearen izaera ekintzailea sustatzen laguntzea.
- Gure herrialdearen ekonomiaren dibertsifikazioa sustatzea.
- Bai eta Euskadiren irudia kanpoan zabaltzea ere.



*Urtea
zifratan*

3.07

Urtea zifratan

3.07

Adierazle ekonomiko-finantzarioak

Ekitaldi historiko batek jardueraren helburu komertzial eta indize guztiak maila handian betetzea ahalbidetzen du eta horri Gizartearen arlo bakoitzaren barruan ezarritako kalitatezko eta eraginkortasunezko adierazleen jarrera bikaina gehitzen zaio.

	Mila Euro
Ekitaldiko emaitza:	3.632
Ekitaldiaren cash flow-a:	6.389
Fondo propioak 12/31n:	64.904
Ekitaldiko inbertsioa:	13.384
Ibilgetze materialak 12/31n:	68.547
Ekitaldiko negozioen zifra garbia:	20.107





Jarduera-adierazleak

Xedeak maila handian betetzen badira ekitaldia ondo itxi dela esan daiteke eta baliabide garrantzitsuak beste proiektu estrategikoetan berriz inbertitzeko aukera dago, horrela Parkearen epe laburreko eta ertaineko erronkei bermeaz aurre egin dakieke.

Bezero kopurua (kokatutako enpresak):	202
Parkearen jabetzako eraikinak guztira (m ²):	58.308
Hirugarren baten jabetzako eraikinak guztira (m ²):	207.932
Lursailen okupazio-indizea:	%87
Eraikinen okupazio-maila:	%92
Ekitaldian zehar izandako jardunaldiak/mintegiak:	1.283
Jardunaldietara/mintegietara bertaratutako pertsona kopurua:	35.402
Lankidetzeta-proiektuak (unibertsitateak, zentro teknologikoak...):	16

Modu berean, nabarmendu behar da helburu komertzial eta indize guztiak eta baita Gizartearen arlo bakoitzaren barruan ezarritako kalitatezko eta eraginkortasunezko adierazleak ere maila handian bete direla.





407

Kontuak

Egoera-balantzea

2006ko eta 2007ko abenduaren 31n (zenbatekoak eurotan)

Aktiboa

	2.007	2.006
B) Ibilgetua	73.066.632	61.230.569
III. Ibilgetze materialak		
1. Lurrak eta orubeak	5.897.533	6.095.616
2. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	62.609.243	55.874.909
3. Instalazio teknikoak eta makineria	15.591.210	13.824.683
4. Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak	1.136.883	1.134.035
5. Aurrerakin eta bideango ibilgetze materialak	8.771.808	7.126.010
6. Bestelako ibilgetua	209.567	207.162
7. Amortizazioak	(25.669.359)	(23.044.554)
	68.546.885	61.217.861
IV. Finantza-ibilgetzeak		
1. Bestelako kredituak	7.853	5.684
2. Epe luzera eraturako gordailu eta fidantzak	7.024	7.024
	14.877	12.708
VI. Zordunak, epe luzeko trafiko-eragiketak direla-eta		
1. Salmentengatiko epe luzerako bezeroak	4.504.870	0
	4.504.870	0
C) Aktibo zirkulatuak	31.662.098	19.025.322
II. Izakinak		
1. Lurrak eta orubeak	10.974.136	9.532.633
	10.974.136	9.532.633
III. Zordunak		
1. Salmenta eta zerbitzu prestazioagatiko bezeroak	10.430.497	2.100.726
2. Taldeko enpresak, zordunak	23.193	44.421
3. Aurrerakinak hornitzaileei	42.487	781
4. Hainbat zordun	69.668	120.800
5. Administrazio Publikoak	389.250	501.845
6. Hornidurak	(163.544)	(148.877)
	10.791.551	2.619.696
IV. Aldi baterako finantza-inbertsioak		
1. Bestelako kredituak	32.563	17.003
	32.563	17.003
VI. Diruzaintza	9.855.690	6.846.895
VII. Aldizkapenagatiko doikuntzak	8.158	9.095
AKTIBOA GUZTIRA	104.728.730	80.255.891

Pasiboa

Egoera-balantzea

2006ko eta 2007ko abenduaren 31n (zenbatekoak eurotan)

	2.007	2.006
A) Fondo propioak	64.903.917	61.272.329
I. Kapital harpidetua	50.196.400	50.196.400
IV. Erreserbak		
1. Legezko erreserba	1.107.593	989.868
2. Bestelako erreserbak	9.968.336	8.908.810
	11.075.929	9.898.678
VI. Galdu-irabaziak	3.631.588	1.177.251
D) Epe luzerako hartzekodunak	20.384.280	2.597.206
II. Kreditu-erakundeekiko zorrak	4.598.840	997.680
III. Taldeko enpresekiko epe luzerako zorrak	11.900.000	0
IV. Bestelako hartzekodunak		
1. Bestelako zorrak	2.990.121	741.351
2. Jasotako fidantza eta gordailuak	895.319	858.175
	3.885.440	1.599.526
E) Epe laburrerako hartzekodunak	19.440.533	16.386.356
II. Kreditu-erakundeekiko zorrak		
1. Maileguak eta bestelako zorrak	498.840	498.840
2. Interesengatiko zorrak	8.027	2.108
	506.867	500.948
III. Taldeko enpresekiko epe laburrerako zorrak		
1. Taldeko enpresekiko zorrak	4.200.000	4.200.000
	4.200.000	4.200.000
IV. Merkataritza-hartzekodunak		
1. Salmenta edo zerbitzu prestazioengatiko zorrak	3.628.027	5.121.646
2. Taldeko enpresa hartzekodunak	4.466	0
3. Bezeroen aurrerakinak	506.282	0
	4.138.775	5.121.646
V. Merkataritzakoak ez diren bestelako zorrak		
1. Administrazio Publikoak	47.179	44.239
2. Bestelako zorrak	24.756	24.946
3. Ibilgetu-hornitzaileak	4.346.992	4.068.765
	4.418.927	4.137.950
VI. Trafiko-eragiketetarako hornidurak		
1. Sustapena bukatzeko hornidurak	4.939.184	1.510.496
2. Bestelako trafiko-eragiketetarako hornidurak	1.236.780	915.316
	6.175.964	2.425.812
PASIBOA GUZTIRA	104.728.730	80.255.891

Kontuak

4.07

Galdu-irabazien kontuak

2006ko eta 2007ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldietarako (zenbatekoak eurotan)

Zorra

	2.007	2.006
A) GASTUAK		
1. Lur eta orubeen izakinen murrizketa	0	2.210.380
2. Hornikuntzak		
b) Lur eta orubeen erosketak	2.725.843	0
3. Ibilgetutik bideango izakinetara eta eraikitako eraikuntzetara egindako transferentziak	6.121.862	115.501
4. Pertsonalaren gastuak:		
a) Soldatak, ordainsariak eta asimilatuak	709.607	632.759
b) Sozial-zamak	171.360	134.267
	880.967	767.026
5. Ibilgetuaren amortizaziorako zuzkidurak	2.757.719	2.590.552
6. Trafiko-horniduren aldaketa		
b) Horniduren aldaketa eta kreditu kobraezinengatiko galerak	14.667	28.614
c) Bestelako trafiko-hornidurak	982.000	748.000
	996.667	776.614
7. Bestelako ustiapen-gastuak		
a) Kanpo-zerbitzuak	4.875.151	3.257.169
b) Zergak	118.543	125.752
	4.993.694	3.382.921
I. USTIAPENENKO MOZKINAK	3.407.775	1.028.171
8. Finantza-gastuak eta gastu asimilatuak		
c) Hirugarren pertsonetikiko zorreatatik eta gastu asimilatuengatik	62.566	55.635
e) Bestelako finantza-gastuak	168	162
	62.734	55.797
II. FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK	155.807	128.359
III. JARDUERA ARRUNTENGATIKO MOZKINAK	3.563.582	1.156.530
12. Ibilgetu materialetik datozen galerak	0	3.363
14. Ezohiko gastuak	3.342	242
15. Beste ekitaldietako gastu eta galerak	876	15.471
IV. EZOHIKO EMAITZA POSITIBOAK	68.006	20.721
V. ZERGEN AURRETIKO MOZKINA	3.631.588	1.177.251
VI. EKITALDIKO EMAITZA (MOZKINA)	3.631.588	1.177.251

Galdu-irabazien kontuak

2006ko eta 2007ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldietarako (zenbatekoak eurotan)

Hartzekoa

	2.007	2.006
B) SARRERAK		
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia		
a) Lur eta lokalen salmentak	12.900.643	4.610.605
b) Errentamenduengatiko sarrerak	5.603.407	4.611.293
c) Zerbitzu prestazioak	1.603.082	1.440.591
	20.107.132	10.662.489
2. Bideango sustapen eta eraikitako eraikuntzen izakinen igoera	1.441.503	0
5. Bestelako ustiapen-sarrerak		
a) Sarrera gehigarriak	6.396	11.945
b) Diru-laguntzak	329.496	176.947
c) Arrisku eta gastuetarako hornidura soberakina	0	19.784
	335.892	208.676
I. USTIAPENEN GALERAK	(--)	(--)
8. Asimilatutako bestelako interes eta sarrerak		
c) Bestelako interesak	218.541	184.156
	218.541	184.156
II. FINANTZA EMAITZA NEGATIBOAK	(--)	(--)
III. IHARDUERA ARRUNTENGATIKO GALERAK	(--)	(--)
13. Ezohiko sarrerak	1.203	104
14. Beste ekitaldietako sarrera eta mozkinak	71.021	39.693
IV. EZOHIKO EMAITZA NEGATIBOAK	(--)	(--)
V. ZERGEN AURRETIKO GALERAK	(--)	(--)
VI. EKITALDIKO EMAITZA (GALERAK)	(--)	(--)

